

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %16,6 gehitu ziren 2017ko apirilean

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) 80,7 euro 2017ko apirilean, aurreko urtean baino %10,7 gehiago

2017ko apirilean, 258.288 bidaiari-sarrera Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 36.733 gehiago, %16,6ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %32,4 gehitu Araban; %19,7 Gipuzkoan; %10,0 Bizkaian. **Komeni da gogoraraztea 2016ko Aste Santua martxoan izan zela eta aurtengoa apirilean.**

Gaualdiak, 2017ko apirilean, 486.886, aurreko urtekoan baino 89.684, %22,6, gehiago. Gaualdiak ere urte arteko positiboa hiru lurraldeetan: %39,7 Araban; %26,0 Gipuzkoan; %15,7 Bizkaian.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2017ko apirila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelati-ko Errentagarritasuna	
							plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
	2017/04	m/m-12 (%)	2017/04	m/m-12 (%)	2017/04	2016/04	2017/04	p.p.*	2017/04	p.p.*		
EUSKAL AE	486.886	22,6	258.288	16,6	1,89	1,79	55,9	9,5	65,4	6,5	80,7	52,7
Estatukoak	306.170	27,9	162.102	17,6	1,89	1,74	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	180.716	14,5	96.186	14,9	1,88	1,89	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	65.146	39,7	36.654	32,4	1,78	1,69	50,3	15,5	58,8	12,3	70,0	41,2
Estatukoak	48.644	45,4	27.065	34,4	1,80	1,66	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	16.502	25,2	9.589	27,1	1,72	1,75	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	46.727	30,7	25.566	24,8	1,83	1,74	52,2	14,2	62,6	9,2	59,7	37,4
BIZKAIA	224.012	15,7	118.629	10,0	1,89	1,80	54,5	6,9	66,3	3,3	74,7	49,5
Estatukoak	138.771	17,0	73.984	7,6	1,88	1,72	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	85.241	13,6	44.645	14,2	1,91	1,92	-	-	-	-	-	-
Bilbao	143.883	9,5	74.146	2,2	1,94	1,81	61,1	4,3	73,4	-0,2	82,7	60,7
GIPUZKOA	197.728	26,0	103.005	19,7	1,92	1,82	59,8	10,0	66,8	7,9	91,5	61,2
Estatukoak	118.755	36,1	61.053	24,6	1,95	1,78	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	78.973	13,4	41.952	13,1	1,88	1,88	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	119.250	29,0	61.245	20,9	1,95	1,83	69,0	12,3	76,9	9,9	112,0	86,1

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Estatuko bidaiariak %17,6 gehitu erkidegoan aurreko urteko apirilaren aldean; atzerrikoak %14,9. Araban estatuko bisitarien sarrerak %34,4 gehitu eta atzerriko bidaiarienak %27,1. Bizkaian estatukoak %7,6 gehitu eta atzeritarrak %14,2 Gipuzkoan estatukoak %24,6 gehitu eta atzeritarrak %13,1.

Batez besteko egonaldia, apirilean, 1,89 egun, 2016koan 1,79 zelarik. Araban lehengo urteko 1,69 egunetik aurtengo 1,78ra luzatu; Bizkaian 1,80tik 1,89ra luzatu; Gipuzkoan 1,92tik 1,82ra laburtu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 9,5 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2016ko apirileko %46,4tik aurtengo %55,9ra. Araban ehuneko 15,5 puntuz gehitu, %34,8tik %50,3ra. Bizkaian ehuneko 6,9 puntuz gehitu, 2016ko apirileko %47,6tik aurtengo %54,5era. Gipuzkoan ehuneko 10 puntuz gehitu, %49,8tik %59,8ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 6,5 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %65,4ra. Araban ehuneko 12,3 puntuz gehitu, %58,8ra; Bizkaian 3,3z, %66,3ra; Gipuzkoan 7,9z, %66,8ra.

Hotel-okupaziorik handienak apirilean Donostian (%69,0), Bilbon (%61,1), Gipuzkoako kostaldean (%59,8).

Asteke eguna aintzat, 2017ko apirilean okupaziorik handiena (%68,7) aste-bukaeretan; %50,3 lanegunetan.

Sektorearen errentagarritasun adierazleez, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 80,7 euro 2017ko apirilean, aurreko urtean baino %10,7 gehiago. 70 euro Araban (%+7,6); 74,7 Bizkaian (%+9,3); 91,5 Gipuzkoan (%+12,4).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 52,7 euro Euskal AEn 2017ko apirilean, 2016koan baino %22,9 gehiago. Araban RevPar 41,2 euro; Bizkaian 49,5; Gipuzkoan 61,2.

Landa-ostatueta sarrerak %59,5 gehitu 2017ko apirilean eta gualdiak bikoiztu baino gehiago

Euskal AEko landa-ostatueta 16.006 bidaiari-sarrera aurtengo apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean %59,5 gehiago. Araban %50,8ko gehikuntza, Bizkaian %56,7, Gipuzkoan %65,0. 2.005 atzeritar sarrera, %63,1eko gehikuntza aurreko urtekoen aldean, sarrera guztien %12,5. Estatuko bidaiarienak %59,0 gehitu.

Euskal AEko landa-establezimenduetan apirilean 40.135 gualdi, aurreko urteko hil beraren aldean %105,2ko gehikuntza. Araban %+79,9; Bizkaian %93,2; Gipuzkoan %+125,4.

Plazakako betetze-maila, %31,6, ehuneko 15,3 puntu gehiago 2016ko apirilean baino. Araban ehuneko 12,5 puntu gehiago, betetze-maila %29,5. Bizkaian betetze-maila %29,6, ehuneko 13,2 puntu gehiago 2016ko apirilaren aldean, eta Gipuzkoan 17,9 puntu gehiago, %33,8.

Bidaiariko batez besteko egonaldia luzatu 2016ko apirilaren aldean: 1,95 egunetik 2,51ra.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2017ko Apirila

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2017/04	m/m-12 (%)	2017/04	m/m-12 (%)	2017/04	2016/04	2017/04	p.p.*
EUSKAL AE	40.135	105,2	16.006	59,5	2,51	1,95	31,6	15,3
Araba/Álava	8.115	79,9	3.276	50,8	2,48	2,08	29,5	12,5
Bizkaia	11.413	93,2	4.612	56,7	2,47	2,01	29,6	13,2
Gipuzkoa	20.607	125,4	8.118	65,0	2,54	1,86	33,8	17,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2017ko Aste Santuaren Balantzea

Euskal AEn, gelakako betetze-maila Aste Santuan, %82,4, aurreko urtean baino ehuneko 2 puntu gehiago

2017ko Aste Santuan, ostegunetik igandera (4 gau) 43.632 bidaiari-sarrera; 2016koan baino %3,8 gehiago. 12.993 sarrera, %29,8, atzeritarak; 30.639 estatukoak. Estatuko sarreretan %3,0ko jaitsiera aurreko urtearen aldean; atzeritarrenetan %24,1eko hazkundera.

Araban 7.073 sarrera, aurreko urtearen aldean %11,7 gehiago; Bizkaian 19.872, %0,7; Gipuzkoan 16.687, %4,4.

Aldi berean 94.123 gualdi Euskal AE osoan, 2016koaren aldean %3,2 gehiago. Araban 13.960 gualdi (%+7,9); Bizkaian 43.223 (%+2,3); Gipuzkoan 36.940 (%+2,6).

2017ko Aste Santuan, gelakako betetze-maila %82,4; aurreko urtekoan baino ehuneko 2,0 puntu gehiago. Gelakako betetze-maila eta 2016koarekikoa: Araban %81,6 (ehuneko +8 puntu); Bizkaian %81,9 (+2,8); Gipuzkoan %83,3 (-1,5).

Hiriburuetan, gelakakoa: Donostia %91,1, handiena, aurreko urtearen aldean -0,4; Bilbon %85,8, +1; Gasteizen %81,7, +5,4.

Euskal AEn, gelakako betetze-maila Aste Santuan landa ostatueta, %69,7

Nekazaritza establezimenduetan, bidaiari-sarrerak Aste Santuan, 3.883 Euskal AEn. Araban 799 sarrera, %+31,2 2016koen aldean; Bizkaian 1.329, %+14,2; Gipuzkoan 1.755 %-2,0.

Aldi berean, gualdiak %+2,8; guztira 12.788. goraka Bizkaian eta Gipuzkoan; beheraka Araban.

Euskal AE osoan, gelakako betetze-maila %69,7; Bizkaian %69,4; Gipuzkoan %71,6; Araban %66,1.

3. taula. Bidaiari sarrerak, gualdiak eta betetze-mailak hotel establezimenduetan eta landetxeetan Euskal AEn, jatorri eta eremu geografikoaren arabera. Aste Santua(*). 2017

	Bidaiarien sarrerak		Gualdiak		Betetzemaila gelaka	
	2017	Δ%	2017	Δ%	2017	p.p.
HOTELAK						
EUSKAL AE	43.632	3,8	94.123	3,2	82,4	2,0
Estatukoak	30.639	-3,0	68.840	-3,4	-	-
Atzeritarrak	12.993	24,1	25.283	26,7	-	-
ARABA/ÁLAVA	7.073	11,7	13.960	7,9	81,6	8,0
Vitoria-Gasteiz	5.050	18,9	9.549	5,2	81,7	5,4
BIZKAIA	19.872	0,7	43.223	2,3	81,9	2,8
Bilbao	11.374	-5,5	26.009	0,0	85,8	1,0
GIPUZKOA	16.687	4,4	36.940	2,6	83,3	-1,5
Donostia / San Sebastián	9.145	3,8	20.893	4,5	91,1	-0,4
LANDETXEAK						
EUSKAL AE	3.883	9,0	12.788	2,8	69,7	-7,1
ARABA/ÁLAVA	799	31,2	2.613	-6,5	66,1	-11,0
BIZKAIA	1.329	14,2	3.906	12,9	69,4	1,2
GIPUZKOA	1.755	-2,0	6.269	1,4	71,6	-10,4

(*) Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau)

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEn, gelakako betetze-maila maiatzaren 1eko zubian, %87,4

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, bidaiari-sarrerak maiatzaren 1eko zubian, 23.426, apirilaren 29tik 30era (2 gau). 47.768 gaualdi egun horietan. Plazakako betetze-maila, %81,5, gelakakoa %87,4, 2017an.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua